

Printze txikia

Autor: Zabaleta Arangoa, Nerea (Maestra. Especialidad en Educación Infantil y Primaria., Profesora de Educación Infantil).

Público: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. **Materia:** Educación. **Idioma:** Español.

Título: Printze txikia.

Resumen

Antoine de Saint-Exupéryek New Yorken zegoela idatzi zuen liburu hau eta Estatu batuetan lehenengoz argitaratu zen. Printze txikia, haur literaturaren klasiko ukazina, munduko hizkuntza askotara itzultako liburua, baina lehendabiziko aldiz frantsesez. Liburu honetan bestetan ez bezala, abenturak alde batera utzirik, liburu honek bakardadea eta adiskidetasunari buruzko hausnarketa pausatu eta poetikoa eskaintzen ditu: haztearekin batera, haurtasuna bertan behera ez uztea proposatzen ditu, baldin eta haurtasuna galderekin, irudimenarekin, xalotasunarekin, benetakotasunarekin lotzen bada.

Palabras clave: Printxe txikia.

Title: Printze txikia.

Abstract

Antoine de Saint-Exupéryek New Yorken zegoela idatzi zuen liburu hau eta Estatu batuetan lehenengoz argitaratu zen. Printze txikia, haur literaturaren klasiko ukazina, munduko hizkuntza askotara itzultako liburua, baina lehendabiziko aldiz frantsesez. Liburu honetan bestetan ez bezala, abenturak alde batera utzirik, liburu honek bakardadea eta adiskidetasunari buruzko hausnarketa pausatu eta poetikoa eskaintzen ditu: haztearekin batera, haurtasuna bertan behera ez uztea proposatzen ditu, baldin eta haurtasuna galderekin, irudimenarekin, xalotasunarekin, benetakotasunarekin lotzen bada.

Keywords: Printze txikia.

Recibido 2017-09-14; Aceptado 2017-09-22; Publicado 2017-10-25; Código PD: 088060

1. IDAZLEA



ANTOINE DE SAINT-EXUPÉRY (1900 - 1944)

Antoine de Saint-Exupéry XX. Mendearrekin bateratsu jaio zen (1900-VI-29), Lyonen, antzinako familia aristokratiko baten altzoan. Laster aitarik gabe geratu bazen ere, oso haurtzaro zoriontsua izan zuen izebaren gazteluan, Saint-Maurice de Rémons-en. Handik gertu bazen aerodromo bat eta badirudi hantxe piztu zitzaiola hegazkinekiko grina, bertako pilotu batekin hegaldatu zen egunean. Friburgorko unibertsitatean ikasi zuen, baina laster aspertu eta ikasketak utzita soldaduskan sartu zen. Honetaz gain, istripuak gorabehera, ahalegin handiak egingo zituen hegazkinetatik ahalik eta hurbilena egoteko: izan enpresa pribatuetan, izan posta zerbitzuan, izan armadan (ezin dugu ahantzi idazlearen bizi laburrean zehar bi mundu gerra piztu zirela). Lehenetarikoa izan zen posta internazionalako pilotua izaten, garai haietan oso baliabide eskasak baitziren hegazkinen inguruan.

Istoria xumea da oso: Saint-Exupéry gerrako pilotu eta Errekonozimenduko 2/33 Hegazkin Taldeko kide da Bigarren Mundu Gerran. Naziak azkar asko ari dira Frantzia inbaditzen, armada frantziarra ez da eraso gerarazteko gauza eta etsipena nagusitzen hasia da. Ingurumari horretan, errekonozimendu misio bat agintzen diete Saint-Exupéry eta beste bi lagun. Badakite horrelako hegaldietan abiatzen diren hiru hegazkinetatik bakarrak lortzen duela itzultzea; badakite, gainera, misio horretan lortuko duten informazio guztia alferrikakoa izango dela, armadako buruzagiekiko komunikazioa etenda dagoelako eta informazio hori nori helarazi ez dutelako. Eta, hala ere, abiatu egiten dira. Tiroketa jasango dute, baina, azkenean, bueltatzea lortuko dute.

Saint-Exupéryren ustez, eurek egiten dutena ez da gerra, gerraren simulakroa baino. Armada frantziarra gainbehera geldiezin batean amildurik dago, etsipenak jota, eta etsipen hori gizarte osora hedatzen da apurka-apurka. Egoera endekatu eta ustel horretan, gerraren absurdoa bere indar osoz agertzen da: herri osoak hustu egiten dira, herritarrek

nora joan ez duten arren, buruzagiek ezertarako balio ez duten aginduak ematen dituzte eta agindu zentzugabe horiek betetzearren soldaduek bizia galtzen dute...

Bigarren Mundu Gerratean, prosan lirikoan hasi zen idazten, nobela modukoa eta gero egunerokoa, agiriak (informes) eta gutunak.

Bigarren mundu mailako gerratean, New York-era ihes egin zuen, ondoren berriro ere Frantzia menderatuak zegoela, itzuli egin zen Mediterraneotik hegaldia egiteko. 43 urte zituela jubilatzeke azken bidaia zuela Mediterranean itsasoan istripua eduki zuen. Orduan, ez Saint-Exupéryren hegazkina ez gorpua, printzipe txikiarena bezalaxe, ez ziren lur gainean agertu. Baina 1998an, handik gertu pertsona batek bere eskukoa harrapatu zuen. Jakin dugunez, 2008an Horst Rippert izeneko pilotu alemaniarrek esan zuen berak suntsitu zuela Saint-Exupéry-ren hegazkina, baina ez zekiela bera zela.

Printzipe Txikia (1943)

New Yorken zegoela idatzi zuen eta Estatu batuetan lehenengoz argitaratu zen. *Printze txikia*, haur literaturaren klasiko ukaezina, munduko hizkuntza askotara itzulitako liburua, baina lehendabiziko aldiz frantsesez. Liburu honetan bestetan ez bezala, abenturak alde batera utzirik, liburu honek bakardadea eta adiskidetasunari buruzko hausnarketa pausatu eta poetikoa eskaintzen ditu: haztearekin batera, haurtasuna bertan behera ez uztea proposatzen ditu, baldin eta haurtasuna galderekin, irudimenarekin, xalotasunarekin, benetakotasunarekin lotzen bada. Horregatik guztiagatik, haurrentzat baino gehiago, helduentzat idatzi den haur baten historia irudi dezake, edota hurrek helduekin batera irakur dezaketena.

Idazleak printze txikiaren bigarren partea idatzi behar zuen, baina asmo hori hutsean geratu zen, zeren. Frantzia menderatuak eta hegazkinekiko grinak harturik, pilotu idazleak azken hegaldi bat egin baitzuen Grenoble eta Annecy-ko eskualdeak fotografiatzeko (1944). Orduan, ez Saint-Exupéryren hegazkina ez gorpua, printzipe txikiarena bezalaxe, ez ziren lur gainean agertu.

1931an bere emaztea zen Consuelo Suncin Sandoval de Gomezekin (1979 hilda), idazle eta artisata zena, bera izan zen Printzipe Txikiaren "arrosa" izateko modeloa.

OBRAK

- El Aviador (1926)
- Correo del Sur (1929)
- Vuelo nocturno (1931)
- Tierra de hombres (1939)
- Piloto de guerra (1942)
- Carta a un rehén (1943)
- El principito (1943)
- Ciudadela, póstumo (1948)

2. ARGUMENTUA

Printze txikiaren ipuinak, helduak jasaten ez dituen gazte baten abenturak azaltzen ditu.

Kontakizunaren hasieran, narratzaileak orain dela sei urte, Oihan Birjinari buruzko liburua bat ikusten ari zela, harriturik geratu zen bertan agertzen zen marrazkiarekin: boak, pizti bat irensten ari zen. Ordun irudi hori margotzeko grina sortu zitzaion; zirriborroa egin ostean, helduengana jo zuen ea honek beldurra sortzen zien galdetzera, baina, denak barre egiten zioten eta marraztea uzteko esan zioten.

Helduen frustrazioaren ondoren, sei urte horiek bakardadean pasa zituen...

Horrela, Saharako basamortutik hegan zihola, bere hegazkinak motor arazoak izan zituen. Bere ondoan ez zegoen, ez mekanikorik, ez bidaiaririk, bera bakar bakarrik zegoen, konponketa bat egiteko. Hil ala biziko arazoa zen zortzi egunerako ura baino ez baitzuen.

Momentu horretan, ume ahots batek arkume bat marraztea eskatu zion, honela bada printze txikia ezagutu zuen. Azken honek, arkume bat margotzeko eskatu zion eta momentu honetan hasi zen printze txikia eta gazte honen adiskidetasuna.

Pertsonaia honek ea nondik zetorren galdetu zionean, Printze txikia pixkanaka joan zen bere planeta deskribatzen. Dirudenez, oso planeta txikian bizi zen. Pentsa ezazue zein ñimiñoa zen, lurrean, asteroide bat kontsideratzen zela.

Gauzak honela, printze txikiak bere planeta txiki horretan zeuden elementuak komentatzen hasi zen:

Itxura denez, “baobab”(azkar hazten diren zuhaitzak) batzuk zeuden, zuhaitz hauek arazo handiak ekartzen zizkion. Arazoa ondorengoa zen, zuhaitz hauek, txikitatik erauzten ez bazituen bere argizagia lehertu zitekeen.

Hiru sumendi ere ba omen zeuden, horietatik bi bizirik eta bat hilda. Egunero kedarrak ateratzen zizkion, erupziorik gerta ez zedin. Hauetan janaria berotu ohi zuen.

Gorxeago bizitzan ikusi zuen lore politenaren istorioa kontatu zion. Arrosa honek beti zereginak eskatzen zizkion, arrazoi honengatik pertsonai ñimiño hau nazkatu eta alde egin zuen. Beranduago, faltan botatzen ziola onartu zuelarik.

Egun batean, bere asteroidea laga zuen unibertsoa ezagutzeko; horrela beste planeta batzuk ezagutu zituen. Argizagi bakoitzean heldu bat bizi zen. Autoreak, heldu hauekin zera erakutsi nahi izan zuen: pertsona gehienak zahartzen diren heinean zein ergelak bihurtzen diren.

Planetetan ezagutu zituen pertsonaia desberdinak erregea, harroxko bat, mozkorra, negozio gizona, farolaria eta geografoa izan ziren. Gero balioen atalean azalduko dugu idazleak planetako biztanle bakoitzarekin erakutsi izan nahi dituen baloreak.

Zazpigarren planetan, Lurrean denbora gehien eman zuen.

Bertan azeri bat ezagutu zuen, zeinek esan zion bera etxekotzeko (domestikatzeko) lagunak izateko. Lagunen garrantzia eta noizbehinka beraiengatik zerbait egin beharra.

Lurrean arroso hiler bat aurkitu zuen. Hau ikustean printze txikia triste jarri zen, hainbeste arrosa ikustean dezepzio bat eraman zuen, berak mundu guztian arrosa bakarra zegoela pentsatzen baitzuen, guzti honek asko mindu zuen.

Beranduago, azeri bat ezagutu zuen eta lagunak egin ziren. Animala honi kontatu zion, berak sentitzen zuen tristura arroso hiler ikusitakoan. Printze txikiarentzat bere arrosa bakarra zen, bera baitzen bere bihotz txikiaren jabea. Agurtzerako garaia iristean, azeriak bere sekretua azaleratzen dio: “ Bihotzarekin baino ez da ongi ikusten, funtsezkoa ikusiezina da begientzat ”.

Zortzi egun pasa ondoren, urik ez zegoela eta hegazkina oraindik konpondu gabe zuela ikusita, oso kezkatua zegoen eta printze txikiari esan zion. Honek, ez kezkatzeko esan eta berarekin ura bila joateko, baina bat-batean iturri bat ikusi zuten. Hau, pertsonak egindako putzu bat zen, polea, soka... baitzuen.

Azkenean, basamotuan printze txikia bere bidai hasieran ezagututako sugearekin hitz egiten ari zen. Suge honek gauean bere pozoiarekin, printze txikia bere asteroidera B612 itzuliko ziola adostu zuen. Asko pentsatu eta gero, printze txikia kontalari gazteaz agurtzen ari zela, istoriaren hasieran eskatutako arkumearen kutxa eta muturrekoa lortu zituela ikusita, bere planetara joateko grina piztu zitzaion bere larrosa ikustearren. Horrela, pilotuak egindako marrazkiekin arkumeak larrosa ez zuen jango. Gauean printze txikia isilik aldegin zuen eta sugeak koska egiten utzi zion bere planetara itzuli ahal izateko. Horrela, pertsonai ñimiñoa elurra bezain zuria bihurtu zen.

Hurrengo egunean gazteak, pertsonai txikitxoak bilatzen saiatu zen baina ez zuen arrakastarik izan, dagoeneko ez baitzegoen inolako printze txikirik.

Pilotuak ahaztu zitzaion arkumearentzako egindako muturrekoan larruzko uhala jartzea. Askotan bere buruari galdetzen zion, arkumeak printze txikiaren larrosa jan ote zuen. Orduetik, triste dagoenean izarrei begiratzen die printzipe txikiaren bila.

3. PERTSONAIAK

Liburu honetako pertsonai bakoitzak bere izaerarekin balio batzuk transmititzen dituzte. Hona hemen atalka hauek azalduta:

ISTORIOKO PROTAGONISTA NAGUSIENAK:

Lagun bananezina: pertsonai hau zeinetan liburuan zehar ez den bere izenik esaten, printzea jarraitu eta honen ekintzei buruz pentsatzen duena esaten doa. Egiten duen guztia analizatu egiten du. Hau da istorioa narratzen duena.

Printze txikia ume hau sentimenduetan zintzo azaltzen da ahaztutako gizaki sentimenduak berreskuratu nahian.

Printze Txikia bere asteroidera itzultzen da, hau da, bere haurtzarora, helduen munduaz desilusionatu eta gogaiturik.

Protagonistaren bakardadeak:

*«—Izan zaitezte nire lagunak, bakarrik nago
—esan zuen Printze Txikiak.
—Bakarrik nago... bakarrik nago... bakarrik
nago —erantzun zuen oihartzunak».*

Ez da existitzen, zerbait psikologikoa da egileak berak asmatutako. Zoriontsu bizitzeko umeak bezala bizi behar gara, goxotasun horrekin, gaiztakeri falta eta beti denean laguntzen, izan ere, munduaren etorkizuna dira.

4. LANTZEN DIREN BALIOAK

Planeta bakoitzeko pertsonai bakoitzak gizakiaren alderdi bat erakusten du

1. Planetan: Erregea. Handinahikeri politikoa. Uste du izarrak gobernatzen dituela hauek obeditu egiteko diolako. Honekin egiaztatu/frogatu zuen jendeak besteen gainetik agindu nahi duela eta bere aginduak , txintik esan gabe, obeditu/men egin behar direla.

2. Planetan: Harroxkoa (harroputza). Harropuzkeria eta gizakiaren egoismoa aurkezten du. Denek bera mirestu beharreko gizona dela uste du.

Bere jokabideak erakutsi jendeak besteen arreta erakartzeko eta bera miresteko pertsona garrantzitsuak egiten dira.

3. Planetan: Mozkorra. Txurrut egiteaz lotsatzen delako berriz ere edariari jotzen dion gizakia. Gizakiaren kemen exkaxa adierazten du. Jendeak gustatzen ez zaien errealitatea ahazten saiatzen da, hau aldatu edota honi aurre egin beharrean.

4. Planetan: Negozio gizona. Eduki nahi dituen izarrak beti ere kontatzen egoten den gizaki lanpetua. Izar hauekin gehiago erostea du helburu. Diruzalekeria eta handinahikeri ekonomikoa aurkezten du. Helduek soilik lanean eta aberastasunean pentsatzen dute, eta ez zoriontsu izatean.

5. Planetan: Farolaria. Minuturo errotatzen duen asteroide batean bizi da. faroa egunez itzali eta gauez pizteko ardura zuen. Garai hartan, asteroidea abiadura zentzudunean errotatzen zuen eta honela deskantsatzeko denbora bazuen; baina denboraren poderioz, errotazioa azkartu eta ondorioz ez zuen deskantsatzeko denborarik. Ardura eta leialtasuna aurkezten du. Bera da bidaian zehar ezagutu duen arima oneko pertsona bakarra. Jendeak ez dela arriskatzen bere bizimodua aldatzera, batez ere beldurrez (galtzekotan).

6. Planetan: Geografoa. Bere denbora osoa mapak marrazten pasatzen du, inoiz ez du bere bulegoa uzten . Lanarekiko maitasuna erakusten du.

Ez du zerbaitetan sinisten ez badu horren erreferentzi materialik (frogak).

7. Planetan: lurra. Bertan denbora gehien eman zuen. Bertan azeria eta sugea ezagutu zituen.

Liburu honetatik hainbat balio atera daitezke:

- a) Helduek ez dugula ilusioak eta fantasia galdu behar eta ez soilik aberastasun eta materialetan pentsatu behar.
- b) Bere lorea askotan faltan botatzen zuen:
Askotan gauzak ez ditugula apreziatzen hauek galdu edota hauengandik urrundu arte.
- c) *"No se ve bien más que con el corazón. Lo esencial es invisible para los ojos"*

5. IRITZIA

Nire ustez, gaitasun literario handia eskatzen duen liburua da. Hori dela eta, bere irakurketa zailagotzen nahiz eta ilustrazioak pixka-bat lagundu. Orrialde gutxi baditu ere, bertako mezua ulertzerako garaian oso pisutsua egiten da. Askotan birritan irakurri behar duzu bere sakontasunean ulertu ahal izateko.

Hasiera batean helduei zuzenduta zegoen batez ere, nahiz eta gero heldu eta gazteen artean gustukoa izan. Adu batzuk 13 urte inguruan kokatzen dute. Literarioki, gaitasun handia eskatzen duen liburua da.

Kanpoko itxurak erraz irakurtzen den liburu bat dela ematen du, izan ere orrialde gutxi dituelako. Baina bere barruko mezua oso sakona da.

Historia filosofikoa da, gizarteko kritikan eta helduen munduan enfasia duena. Egileak gizakiaren tenteltasunaren ikuspuntua ezagutarazten digu, umeei duten jakintza sinplea, zein pertsona batzuk heltzen direnean galtzen duten.

Ipuinaren denborari buruz esan, egitura ez dela lineala, denboran atzerantz saltoak daude eta. Lengoiari dagokionez poetikoa da, hasiera batean sinplea baina pixkanaka aldatzen doa.